



BARREN

TOKIKOM

# M 8



# Emakumeek\* planto

# LEHIAKETA!

25. urteurrenaren harira,  
'Barren beti gainean' argazki lehiaketa  
antolatu du BARRENEK.

Gaurtik **apirilaren 13ra arteko opea** daukazue  
BARREN zenbaki batekin argazkia ateratzeko.

Parte hartzen duzuen guztion artean  
**Errigorak emandako bi otar zozketatuko ditugu,**  
eta apirilaren 20ko zenbakian  
emango dugu irabazleen berri.

Argazkiak bidali honako helbide honetara:  
**[barren@elgoibarkoizarra.eus](mailto:barren@elgoibarkoizarra.eus).**

Argazki guztiak **[www.barren.eus](http://www.barren.eus)**  
webgunean zintzilikatuko ditugu.



## BARREN beti gainean



# SUKALDARITZA TAILERRA FAMILIAN

10:00 - 13:00



HH2-LH3  
bitarteko  
ume  
eta  
familientzat



Martxoak 10,  
zapatua  
Elgoibarko  
Ludotekan

Antolatzailea:



ADULTERAKA

Babeslea:



Euzko Legebiltzaria

elgoibar

Laguntzaileak:



Gipuzkoako Foru Alderdia



EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO

EL GOBIERNO VASCO  
EUSKO LEHIAKETA  
GOBIERNO VASCO  
EUSKO LEHIAKETA

## Lan onari, hainbat sari

**'Lehenago eta orain, lanari sari edo ordain' dio esaerak eta 25 urteko ibilbidean BARREnera ere iritsi dira hainbat sari, egindako lan onaren ordainetan: Ainhoa Lodoso kazetariak 1993an jaso zuen Emakunde Saria, Elgoibarko kirol federatuaren saria etorri zen gero 2012an, eta Ainara Argoitia kazetariak 2013an jaso zuen Rikardo Arregi saria. Tokiko hedabideetan ere kalitatezko lanak argitaratzen direla erakusteko eta lanean gogotsu jarraitzeko indarra izan dira guretzat sariok.**

Ainhoa Lodosok 1993an, BARRENen estreinako urtearen amaieran, jaso zuen Emakunde Saria, Jose Antonio Ardanza orduko Eusko Jaur-laritzako Lehendakariaren eskutik. Sariak ikusentzunezkoen alorrean, prentsa orokorraren alorrean eta kirol informazioaren atalean banatu zituzten. Azken atal honetan, orduan elgoiBARREN izena zuen kazeta honetako kazetariak ohorezko aipamena jaso zuen. Kirolean aritu nahi zuten neska gazteen kirol jarduerak bere orrietan etengabe zabaldu izanagatik nabarmendu zuten.

Kirolak badu lekua, bai, BARRENen. Elgoibarren kirol federatuaren sariak banatu zituztenean urtean barrena kirol bakoitzean egindako lana saritzen dute klubek Kirol Federatuaren Sarietan, eta 2012koan, BARREN izan zen sarituetako bat. Hemezortzi sari banatu zituz-

ten guztia. Kirol Patronatuak bi sari banatu zituen, eta horietako bat jaso zuen BARRENek, "hogei urtean Elgoibarko bizitza islatzeagatik eta bereziki kirolari urte guzti hauetan emandako garrantziarengatik". Ainhoa Andonegik jaso zuen saria Alfredo Etxeberria orduan alkate zenaren eskutik.

Rikardo Arregi kazetaritza sarietan epaimahaiaren sari berezia jaso zuen 1993an Ainara Argoitia BARRENeko kazetariak aldizkarian argitaratutako lau lanengatik, bereziki bi piezagatik. Pello Rubiori eginiko elkarrizketa eta *36ko gerra, elgoibartarren ahotan* lanak nabarmendu zituzten. "Euskal Herrian bizi duen memoriaren berreskuratze eta bakeranzko garaiotan", Ainarak egindako ahalegina "gogoangarria" dela esan zuen epaimahaiak, bereziki "gai korapilatsuak"

lantzeko hartu zuen "tonu serio eta estridentziarik gabekoagatik". Kazetariaren idazkeraren "dotorezia eta adierazkortasuna" ere azpimarratu zituen epaimahaiak.

Ezustean hartu zuen Ainara Argoitiak saria eta horren sari garrantzitsua jasotzea beretzat ohore handia izan zela adierazi zuen BARRENen bertan, eta izugarri poztu zuela gaineratu. Sari banaketan honela esan zuen: "Ederra da norbere lana baloratzen dutela ikustea, eta are ederragoa aipatzen dituzten lanak gurea moduko herri komunikabide txiki batean argitaratuta-koak direnean".

Horrelako sariak aldizkariaren izena lau haizetara zabaltzeko ez ezik, profesionalok eguneroko lanean lehen eguneko ilusioarekin jarraitzeko ere balio dute.



Ainhoa Lodoso Emakunde Saria jasotzen, 1993an. Azala eskaini genion.



Ainara Argoitia Rikardo Arregi saria jasotzen. Azala eskaini genion.



2012an, Ainhoa Andonegi BARRENeko zuzendariak jaso zuen saria.



## ‘Influencer’-ak

harko geniokeela, harago joan, kontsumismoaren mundu horretatik aldendu; gazteen artean duen bultzada hori aprobetxatu eta didaktikoa egin.

Aste honetan bertan emandu jakitera Emakundek Emakumeen Nazioarteko Egunerako aukeratu duen aurtengo leloa: *Berdintasuna ikasi egiten da. Irakatsi berdintasuna*. Eta hezkuntzaren munduan, eta baita hezkuntzaren mundu horretatik kanpo dauden *influencer* horiek guztiak etorri zaizkit burura leloa irakurri bezain

**“Ikasgelen eta irakasleen mugak zeharkatzen ditu berdintasuna eraikitzeko beharrezkoa den konpromisoak”**

Azken urteetan asmatu den terminoa da *influencer* hitza. Familiarra egiten ez zaionarentzat, *influencer* izatea, beste pertsona batzuegan eragina duen pertsona izatea da. Sare sozialen bueltan asmatu den terminoa da hau eta modaren, kontsumoaren eta publizitatearen munduari oso lotuta dago. Enpresek *influencer*ak erabiltzen dituzte euren produktuak saltzeko eta publiko potentzialera iristeko.

Esango nuke, ordea, *influencer* hitzaren esanahiari beste buelta bat eman be-

pronto. Gazteen balioak erakitzerako orduan gakoak diren horiek, hain zuzen. Eta gazteak diot, Emakunderen mezuak argi eta garbi jartzen diolako arreta hezkuntzaren, eta adi, ez soilik irakaskuntzaren garrantziari.

Izan ere, “ikasi” edo “irakatsi” bezalako hitzek ikastetxeetako hezkuntzara begira jartzen bagaituzte ere, ikasgelen eta irakasleen mugak zeharkatzen ditu berdintasuna eraikitzeko beharrezkoa den konpromisoak.

Nekez lortuko baitugu berdintasunean oinarritzen den gizarte bat, baldin eta gobernuek, enpresek, komunikabideek, publizitateak, kirolaren munduak, gurasoak, eta oro har, gizartea osatzen duen pertsona orok ez badu berdintasunez jokatzeko eta berdintasunean oinarritzen diren baloreak transmititzeko ardura hartzen.

Eta hor dago, hain zuzen, planteatzen dudana *influencer*-aren figura ulertzeko modu berriaren gakoa.



BARREN

ARGITARATZAILEA:



ELGOIBARKO IZARRA  
Euskal Lehen Urtegarria

Kalebarren plaza, 2 - 20870 ELGOIBAR

943 744 112

Publizitatea: 943 743 704

[barren.publi@elgoibarkoizarra.eus](mailto:barren.publi@elgoibarkoizarra.eus)

[barren@elgoibarkoizarra.eus](mailto:barren@elgoibarkoizarra.eus)

[www.barren.eus](http://www.barren.eus)

BARREnek bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarriak lekuz aldatzeko eskubidea. BARREnek ez du bere gain hartzen Irtizia, Hitz eta klik eta eskuizak ataletan adierazita koen erantzukizunik. **KOORDINATZAILEA** Ainhoa Andonegi **KAZETARIAK** Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Ainara Argoitia, Irati Agirreazaldegia **HIZKUNTZA ARDURADUNA** Ainara Argoitia **PUBLIZITATEA** Leire Rubio **MAKETATZAILEA** Zaloe Arnaiz **ATARI DIGITALEKO ARLO TEKNIKOAREN ARDURADUNA** Aitor Lauzirika **ADMINISTRARIAK** Amaia Arrizabalaga, Nerea Osoro **KOLABORATZAILEAK** Ibon Serrano, Ana Alberdi, Eire Vila, Manu Sanchez, Unai Villena, Iosu Juaristi, Ainhoa Lendinez, Iñigo Lamelas, Jose Luis Azpillaga, Julen Ansola, Edurne Izagirre, Alain Ulazia, Paula Heras, Enez Ezenarro, Jesus Jimenez, Mikel Artola, Iñaki Odriozola, Ander Sorraluze, Arantza Etxeberria, Irati Agirreazaldegia, Jone Olaizola **INPRIMATEGIA** Gertu Koop.E. **TIRADA** 4.885 ale **LEGE GORDAILUA** SS-1.038/92 ISSN 1138-1855

BABESLEA:



LAGUNTZAILEAK:



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

**KULTURA ETA HIZKUNTZA**  
**POLITIKA SAILA**

(Hezkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua

BARRENeK ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitako enantzikuzunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dute. Ez ahaztu izen-abizenak, NANa eta telefonoa jartzea. Bidali helbide honetara: [barren@elgoibarkoizarra.eus](mailto:barren@elgoibarkoizarra.eus)

### ▶ EZERLARIAK

Bertsotan egiten baduzu bertsolaria zara, futbolean egiten baduzu futbolaria, eta martxoaren 8an Euskal Herriko Mugimendu Feministak bultzatuta lau orduko lan uztearen alde ezer gutxi egiten baduzu, zer zara? Grebalaria ez, behintzat. Izan ere, EAJ alderdiko emakumeek nazioarteko emakumeen egunean planto egin beharrean ordu laurdeneko "atsedena" egingo dute gizarteak ikus dezan konpromiso eta zaratara handirik egin gabe, ezerlaria (barka bekit garbizale horrek) izanda eta hauteskundeetan botoa emanda, lasai asko bizi zaitezkeela.

**Juan Luis Mugertza Unanue**

### ▶ ZUZENKETA

Joan zen ostiraleko BARRENeN oker ipini genuen izen bat erretratu zahararen atalean. Kontxita Armendia izan beharrean, Mari Carmen Arozena zen argazkikoa.

### BARREN

### ESKUTITZEI BURUZKO ARAUDIA

BARRENeN edozein gutun argitaratu ahal izateko, honako baldintza hauek bete beharko ditu nahitaez:

1. Eskutiz guztiek identifikatuak egon behar dute: izen-abizenak, telefono zenbakia eta NAN zenbakia derrigorrezkoak dira.
2. 1.500 karaktere izan behar ditu gehienez eskutitzak.
3. Eskutitzak izen-abizenen inizialekin edota izen-abizenekin argitaratu dira. Ezizenarekin ezingo dira sinatu gutunak. Onartu egingo ditugu identifikagarriak diren taldeak: "Ikastolako irakasleak", esaterako. Bestalde, sinatzailearekin batera beste lagun batzuk ere daudenean, hauek ere identifikatuta egon behar dute.
4. Pertsona eta erakundeek gutun-egilearen izen-abizenak jakiteko eskubidea izango dute gutun horretan euren izena aipatu edo erreferentziaren bat egiten bada eta gutuna inizialekin sinatuta badago.
5. Ez dira onartuko: biraokak, gutun iraingarriak eta errespetu faltaz idatzitakoak, buzoneatzeko edo kale banaketa egiteko idatzitako idazkiak, pertsona eta erakundeetako zuzenduriko mehatxuak...
6. Ez dugu gazteleeraz datorren eskutizik argitaratuko.

### XI. URTEURRENA

## Ramon Untzilla Aranberri

2007ko otsailaren 27an hil zen, 42 urte zituela.

***Kaixo, Ramon  
ta memoria zure irria  
ta memoria zure begiak  
ta memoria zure keinua  
ta memoria zure izatea  
ta memoria bizi zaitugu  
ta memoria zure aiduru  
ta memoria zaitugu katigu  
ta memoria zaitugu***

Etxekoak



## Maltzagan pasabide bat eraikiko dute Elgoibar eta Eibar lotuko dituen bidegorriak batzeko

Gipuzkoako Foru Aldundiko Mugikortasun eta Lurralde Antolaketa Sailak bost milioi inbertituko ditu aurten bidegorrietan eta bizikletaren erabileraren sustapenean. Bidegorri zati berriak eraikiko ditu, besteak beste, eta horien artean, Eibartik Maltzagara bitartekoa. Azitaindik Maltzagara artean bi kilometroko bidea egingo dute, eta bat egingo du Elgoibarrera artekoarekin.


Oraindik proiektua garatzen ari badira ere, aurreikuspenen arabera ibilbideak 3 eta 3,5 metrora arteko zabalera izango du, nahiz eta zati zehatz batzuetan bi metrora arte estutu.

### Gune korapilatsua

Bi herrietako Udalek, herritarrek eta Foru Aldundiak hainbat urtez izan dute Elgoibar eta Eibar bidegorriarekin elkartzeko asmoa, baina zailtasun teknikoek atzeratu dute egitasmoa. Orografiak, azpiegiturak eta bide-zorrek zaildu dute Azitain eta Maltzaga arteko zatiko lanak egitea. Izan ere, hor bat egiten dute Euskotreneko trenbide sareak, 627 errepideak eta A-8ak bat egiten duten lekuak eta Deba ibaiak. Hainbat aukera aztertu ostean erabaki dute zatirik korapilatsuenan %6ko maldadun pasabidea egitea.

Gipuzkoa Bizikletaz egitasmotik jakinarazi digutenez, orain ari dira proiektua idazten, eta lanak aurtengo partean hastea da asmoa.

Bidegorri zati honekin Debabarrenean bizikletaren erabilera sustatu nahi da. Horrez gain, etorkizunean Deba bailara



osora zabaldu nahi dute bidegorri sarea. Hala, Sorluzetik Maltzagara arteko zatiak bat egingo luke orain egingo dutenarekin eta horrela, Debagoienera eraikitako bidegorriekin elkartuko lizateke sarea luzatuz.

## Mekako 31 ikaslek atzerrian egingo dituzte praktikak



Meka Lanbide Eskolatik 31 ikasle joango dira Europara (Italia, Finlandia, Txekiar Errepublika, Polonia eta Erresuma Batua) praktikak egitera Erasmus+ proiektuaren baitan. Administrazioa, automozio, fabrikazio mekaniko, gizarte eta kultur zerbitzu eta osasun ikasleek jaso dituzte bekak. Era berean, Mekan atzerriko ikasleak hartu dituzte. Danimarkako bi Mendaroko Ospitalean ari dira eta beste bi Eibarko Ego-Gain egoitzan.

## Pinuak botatzen hasi dira Morun, hango ondarea bistaratzeko

Moru mendi gailurreko pinuak botatzeko lanak hasi dituzte eta aurki garbiketa lanekin hastea aurreikusi du Elgoibarko Udalak. Aztar-nategi arkeologikoaren eta mendi-hegaleko burdin aroko herrixka-ren aztarnak nabarmentzea da lanon helburua.

Uda aurretik, bigarren fasean, gainontzeko pinuak bota, hondakinak garbitu eta zulaketa berriak egingo dituzte. Lanak Espainiatik etorritako 18 eta 26 urte arteko gazte talde batek uztailan egingo ditu Eusko Jaurlaritzako Auzolandegiak 2018 programaren baitan, arkeologo profesionalek zainduta.

Berreskuratze lanak amaituta ezinbestekoa da herriaren ondare aberastasanari merezi duen garrantzia ematea. Horretarako, Udalak, sustapenaren aldeko apustua egin du eta teknologia berrien bidez, informazioa zabaltzeko sistema martxan jartzea aurreikusi du. Bestek beste 3D animazioa eta QR kodeen bidez funtzionatuko duten hiru ikus-entzunezko. Bideo hauek lan metodo eta teknikak, berreskuratutako material arkeologikoak, frontea eta lubakia eta hauetan aurkitutako materialak azalduko dituzte.


## Kultur Etxeko hiru aretotan egingo dute 'Oxido. Umore garratza' antzezlan



Martxoaren 9an, datorren ostiralean, *Oxido. Umore garratza* antzezlan eskainiko du Pez Limbo konpainiak Kultur Etxean. Bi saio izango dira: 20:30ean, gaztelaniazkoa, eta 22:30ean, euskarazkoa eta sarrera doan izango da. Antzezlan honetan bizitzaren absurdoari aurre eginez ezohiko gertaerak bizi dituzten pertsonaia bereziak agertuko dira. Hiru gertaera barregarrik pertsonaia hauen giza harremanen eta bizi diren gizartearen herdoila utziko dute agerian. Gizakiaren gaiak hartu eta umoretik muturrera eramango dituzte.

Antzerkia Kultur Etxeko hiru aretotan (sotoan, erakusketa aretoan eta hitzaldi gelan) ikusiko dute bertaraten direnek. Hiru mikro-antzezlanetan banatua egongo da. Hasieran, bi taldetan banatu eta bakoitzak pieza bat ikusiko du, gero trukea egin eta besteek ikusitakoa ikusiko dute. Azkenik, bi taldeek bat egin eta hirugarrena elkarrekin ikusiko dute. *Madame B* eta *Homo amabilis* taldetan banatuta ikusiko dituzte, eta *Margarita Molotov*, azkena, denek batera.

Musu originalenaren saria jaso dute Ana Lealek eta Makor dendak



San Balentin egunaren aitzakian, musurik originalena saritzeko lehiaketa antolatu zuten Elgoibarko hainbat ostalarik. 50 argazki inguru aurkeztu dituzte herritarrek, baina denek ez dute balio izan, aurkeztu dituztenek ez dituztelako behar bezala erabili sare sozialetako traolak, eta lehiaketaren sustatzaileek arazoak izan dituztelako bilatzeko. Balio izan duten argazkien artean bik jaso dute saria (Cariñena ardandegira bisita) Ana Lealenak eta Makor dendarenak.

RTVEko sari bat irabazi du Oihane Agirrebeñak

Elgoibar Ikastolako ikasle Oihane Agirrebeñak RTVEko *No es un día cualquiera* irratsaioko Verba Volant lehiaketa irabazi du, irratsaiok latinari eta kultura klasikoari eskainitako ataleko lehiaketan. *Amodioa denaren gainetik* esaldia latinera itzuli zuten 800 lagunek baino gehiago, eta Oihane Agirrebeña elgoibartarrak irabazi zuen lehiaketa. Poesia liburu bat eta *Numantia* bideo-jokoa jasoko ditu saritzat.

# “Errigorako olioa eta kontserbak probatzen dituenak berriro eskatzen ditu”

## ▶ ANE GUILLO ARAKISTAIN ERRIGORAKO BOLUNTARIOA

Nafarroa hegoaldeko uzta Euskal Herriko beste hainbat txokotara zabaldu asmoz *Zubi bat sukaldera* kanpaina jarriko du abian Errigora egitasmoak martxoaren 6tik 20ra bitartean. Ekimen herritar honek euskara ofiziala ez den zonaldean eragin nahi du, eremu horretakoak diren produktuei Euskal Herrian bidea emanaz, euskaratik, euskararako eta euskaraz. Sare zabala da Errigora-rena eta Elgoibarren ere baditu boluntarioak. Horietako bat da Ane Guillo, eta berak eman dizkigu egitasmoari eta kanpainari buruzko azalpenak.

- IRATI AGIRREAZALDEGI -

♦ **Nafarroa Hegoaldeko uzta eskutik es-kura zabalitzen duela dio besteak beste Errigora egitasmoak. Baina produktuak zabalteaz gain, beste helburu batzuk ere baditu, ezta?**

Sare bat da Errigora. Jende guztiak jaten du, eta denok egiten ditugu erosketak, baina askotan ez gara konturatzen erosketa horiek egiterakoan hautu bat egiten dugula; gauza batzuen alde egiten dugula. Ez da gauza bera zainzuriak Peruritik ekartzea -besteak beste hegazkinez datozelako bide luzean- edo Nafarroa hegoaldeko ekartzea. Ezta ere produktuak baldintza batzuetan edo beste batzuetan lantzea. Beraz, herritar sare bat gaude Nafarroa hegoaldeko hainbat ekoizleren produktuak Euskal Herri osoan banatzeko. Harremana zuzenekoagoa da ekoizlee-kin eta nazio izaera indartzen ere laguntzen du. Nafarroako Erribera oso erdaldua izan da beti, baina horrelako gauza txikiekin konturatzen gara pixkanaka Euskal Herri barruan zubiak sortzeko aukera daukagula.

♦ **Zein produktu banatzen dituzue?**

Errigora-rena baitan bi kanpaina nagusi



egiten dira: udazkenean, bat, eta orain, bestea. Udazkeneko kanpainen, auzolanean prestatzen dira kaxak, Erriberan, hango produktuekin, eta handik bidaltzen dizkiguten kaxak banatzen ditugu guk hemen. Produktu jakinak daude kaxa horietan. Erakusgai gisa funtzionatzen dute, probatu eta gustatuz gero oraingo kanpainan gehiago eskatzeko.

Oraingo kanpainen, Olio eskaintzen da batetik, ekologikoa eta arrunta. Bestetik, barazki-kontserbak: piperrak, zainzuriak, orburuak, barazki-menestra, potxak, tomate frijitua eta barazki kremak. Horiek ekainean banatzen ditugu. Produktu gehienetan hainbat marka ezberdin daude aukeran, eta tomatearen kasuan, frijitua eta frijitu gabea. Olioak ere oliba mota ezberdinekin egindakoak dira, eta aukeran daude. Gehienek urte gutzitrako erosketa egiten dute. Nik, esaterako, iaz

sei olio-bidoi erosi nituen eta ez dira nahi-koak izan. Erosi nituen kontserba guztiak ez ditut jan, hala ere, eta beraz, orain ez ditut horiek eskatuko. Ez dira derrigorrez denak urtero hartu behar.

♦ **Zubi bat sukaldera da aurtengo leloa. Zer adierazi nahi duzue horrekin?**

Sukaldea da familia elkartzeko, komunitatea eratzeke eta berba egiteko lekua. Etxe bakoitzetik zubi bat ateratzen da norbere sukaldea gainerakoekin lotzeko eta Errigora-rena inguruan sortu dugun komunitatearekin bat egiteko.

♦ **Errigora-rena komunitatea handitzen ari da urtetik urtera. Zein da horren arrazoiak?**

Orain dela 5 urte hasi zen egitasmoa, eta 4 ekoizle eskaini zituzten olioak eta kontserbak 2014an. Aurten, 14 izango dira aurten. 1.500 familia inguruk eskatu zuten olioak 2014an, eta iaz, 6.000 su-



kaldera iritsi zen. Ideia oso erakargarria da. Elgoibarren eskaerak jaso eta eskatutakoak banatzen ditugu gero, eta garbi ikusten dugu Errigorako olioak eta kontserbak probatzen dituenak berriro eskatzen dituela gero, gu eskaintzera joan beharrik gabe. Produktua ona eta kalitatezkoa izateak interesa sortzen du. Produktu ekologikoak ere gero eta gehiago dira. Euskaltzaleak direnak ere sartzen dira zakuan. Askotariko jendeak egiten du bat egitasmoarekin. Batzuek kultura mugimenduari erreparatzen diote eta beste batzuek produktuari. Hala ere, kontzientzia eskatzen du Errigorako produktuek erosteak. Gutxieneko kultura maila bat behar da ulertzeko jaten ari garen horrek zein garrantzi daukan osasunean. Ekologikoa eskatzen dutenek adibidez gehiago ordaintzen dute eta prest daude horretarako, ulertzen dutelako. Aurten, hala ere, olioaren prezioak gora egin du leku gehienetan, baina Errigorak mantendu egin du. Egitasmo honetatik gustatzen zaidana da ikustea janaria bezalako oinarriko produktu batek zenbat esanahi dituen. Jatea denoi gustatzen zaigu, baina horrez gain produktuon birtartez beste zerbaitekin egin badezakegu, hobe.

#### ◆ Zein dira beste gauza horiek?

Nafarroako Erribera ere Euskal Herria da, eta honen bidez hori azalartzen da, gertuko produktuak hartzea. Nik ez dut ezer beste herrialdeetako produktuen aurka, baina gertukoak beti dira hobeto.

Bestalde, udazkeneko kanpainako %25 euskalgintzara bideratzen da: Nafarroako AEK, Ikastolak, Sortzen... Oraingo kanpainan ez dago dirurik euskalgintzarentzat, oraingoan helburua gehiago delako ekoizleekin daukagun harreman zuzena indartzea. Hala ere, saiatzeko gara etiketak euskaraz jar ditzaten. Prezio ona horregatik dute Errigorako produktuek, bitartekaririk ez dagoelako eta dirua ez delako bidean galtzen.

#### ◆ Ekoizle, banatzaile eta kontsumitzaileen arteko zubiak eraikitzen dituzue.

Batzuk Erriberara joaten dira udazkenean produktuak kaxetan sartzera, baina Elgoibartik ez gara sekula joan. Kanpaina honetan olioak eta kontserbak ekartzera Erriberakoak eurak etortzen dira: Ablitastik, Cascantetik... baina apenas izaten dugu traturik guk haiekin.

#### ◆ Elgoibarren, hortaz, eskaerak jaso eta gero produktuak banatzen dituzue.

Udalak merkatu plazan postu bat uzten digu eta eskertzekoa da. Han deskargatzen dituzte, eta hantxe antolatzen dugu guk dena banaketa egiteko. Baina ez da erraza izaten banatzaileekin hitzorduak egitea, merkatu plazako ordutegiak eta gureak mugatzen gaituztelako. Aurten boluntario berriak ditugu taldean, baina beste norbait prest balego parte hartzeko, primeran. Banaketarako egun bakarra jartzen dugu, eta jende guztiak ezin izaten duenez etorri haiekin harremanetan jarri behar izaten dugu eta lana da.



Oier Narbaiza, Ane Guillo eta Auritze Maiora.

## PRODUKTU ESKAINTZA

Martxoaren 20ra arteko epea dago olio eta kontserbak eskatzeko, Internetez ([www.errigora.eus](http://www.errigora.eus)) edo eskuorria beteta. Elgoibarren, informazioa eman eta eskariak jasoko dituzte bihar, martxoaren 3an, Kalebarren plazan, 11:30etik 13:30era. Olioak apirilean banatuko dute, eta kontserbak, ekainean. Hona koak dira kanpainako produktuak:

### OLIOA

- ◆ Oliba-olio birjina estra (5L) 23€
- ◆ Oliba-olio birjina estra ekologikoa (5L) 34€
- ◆ Olio-aurkera sorta (arroniz eta arbe-kina ekologikoa, pikual eta enpeltre konbentzionala) (5L x 4 bidoi) 114€

### KONTSERBAK

- ◆ Pikillo piperrak (425 ml-ko 12 ontzi) 32€
- ◆ Pikillo piper ekologikoak (250 ml-ko 12 ontzi) 36€
- ◆ Zainzuriak (425ml-ko 12 ontzi) 43€
- ◆ Zainzuri ekologikoak (370 ml-ko 12 ontzi) 45€
- ◆ Orburuak (720ml-ko 12 ontzi) 45€
- ◆ Orburu ekologikoak (720ml-ko 12 ontzi) 77€
- ◆ Menestra (720ml-ko 12 ontzi) 39€
- ◆ Menestra ekologikoa (720ml-ko 12 ontzi) 64€
- ◆ Potxak (720ml-ko 12 ontzi) 22€
- ◆ Potxa ekologikoak (720ml-ko 12 ontzi) 29€
- ◆ Tomate frijituak (370 ml-ko 12 ontzi) 15€
- ◆ Tomate frijitu ekologikoa (370 ml-ko 12 ontzi) 17€
- ◆ Kremak (500 ml-ko 12 ontzi) 19€
- ◆ Crema ekologikoak (500 ml-ko 12 ontzi) 24€



Miren Vives, Amaia Kaltzakorta, Izaskun Estibaritz, Maite Unzueta, Esther Alonso eta Elena Alonso.

## Amantalak eskegi, lanari balioa aitortu

Lehenengo aldiz, nazio mailako grebara deitu du Euskal Herriko mugimendu feministak, gehiengo sindikalak eta hainbat gobernuz kanpoko erakundek Martxoaren 8rako. Emakumeak, populazioaren erdia, daude grebara deituta, 'Emakumeok\* planto' leloaren pean [emakume gisa identifikatzeko modu ugari daudela irudikatzen du izarrak]. Emakumeen lanak gure gizartean duen eragina ikustarazteko eta lan hori aintzat har dadila eskatzeko geldituko dira, eta horregatik, greba ez da merkatuak lantzat hartzen duen horretara mugatuko. Hau da, greba ez da enpresetan diharduten emakumeentzat bakarrik izango, lan gisa aitortzen ez diren etxeko zaintzetan eta erreprodukzio lanetan dihardutenei ere gelditzeko deia egin dietelako. Emakumeen ekarpenik gabe, gizartea geratu egiten dela erakutsiko dute, eta protesta gisa, egun horretan leihoretan amantalak eskegitzeko eta besoko moreak janzteko eskatu dute deitzaileek eta baita grebarako arrazoiekin bat egin dutenek ere, tartean Emakundek eta Eudelek ere [Elgoibarko Udaleko udalbatzarrak Eudelen adierazpena onartu zuen egunean, EAJren botoekin. EHBildu abstenitu egin zen adierazpenak ez zuelako grebara deitzen]. Grebarako deialdiaren harira, hainbat emakume bildu ditugu mahai bueltan, emakumeen azpiratzeaz eta Martxoaren 8az hitz egiteko. Maite Unzueta (1951), Izaskun Estibaritz (1956), Elena Alonso Elgoibarko Berdintasun teknikaria (1962), Amaia Kaltzakorta (1970), Miren Vives (1973) eta Esther Alonso (1975). Narrutsik talde feministakoak ere gonbidatuta zeuden solasaldira, baina azkenean ezinezkoa izan zitzaizen agertzea.

- AINARA ARGOITIA -

Inork ez du ezetzik eman, baina ez da erraza izan eguna eta ordua lotzea. Maite Unzueta ez beste guztiek soldatapeko lana dute, baina horrek baino gehiago zaintza-lanak ditu lotuta. Jarri dugu hitzordua, baina: Egunean, 14:30etik 16:30era, umeak eskolan laga eta jaso arteko tartea askorentzat. "Egin aproba gizonen mahai-inguru bat lotzen. Jarri 19:00etan eta baietz denak lotu!", bota du Elena Alonsok. Inork ez dio kontra egin.

♦ **Eta emakumeok planto egiten badugu, zer? Egiten dugun guztia egingo ez bagenu, zer?**

**Elena:** Garbi dago: guztiok egiten badugu, sistema gelditu egingo da. Greba

edo planto honek funtzio hori du: menpean hartzen eta zapaltzen gaituen sistema kapitalista eta heteropatriarkala salatzea eta bistaratzea azpiratuok egiten dugun ezkutuko lan guztia.

**Maite:** Puntu honetan inork ezin du kontra egin. Emakumeok planto egiten badugu, akabo mundu hau!

♦ **1975eko hartan Islandiako emakumeen\* %90ek etxean eta etxetik kanpo lan egiteari uko egin ziotenetik hainbat saio egin dira han-hemen, baina Euskal Herrian estreinako aldia da nazioarteko greba deialdiarekin bat egiten dela. Zer du berezia honek?**

**Izaskun:** Pauso izugarria da, bi arrazoi-gatik. Batetik, Martxo 8 esanahiz husten

ari zelako azkeneko urteotan eta planto honekin zuzendu dugulako berriz norabidea, eta bestetik, lortu delako gai hau mahai gaineratzeko prest agertu den mugimendu bat osatzea nazioartean. Azkeneko urteotan Martxoaren 8ak hartua zuen irudiarekin amorrarazita nengoen ni neu. Martxoaren 8a emakumeok bizi dugun zapalkuntzaren kontra protesta egiteko eguna da, gure haserre agertzeko eta berdintasuna aldarrikatzeko eguna. Zentzu horretan oso garrantzitsua izan da sindikatuek deialdiarekin bat egitea, ni neu sindikatu zalea izan ez arren.

**Miren:** Bai, sindikatuak batzea babes handia izan da, baina handiagoa iruditzen zait gizartea emakumeen greba uler-



tzeko gai izatea bera. 'Gu geldituz gero, akabo zuek!' ulertzea oso garrantzitsua da, baita sistema gelditu ezta ere, bistan delako enpresa gehienetan ez dutela greba egingo. Sekulako mugimendua dago, eta harrিতා ez ezik hunkituta ere banago ni neu.

**Amaia:** Grebara deitzeko ausartu den talde bat izatea bera da handia, emakumeok ez gaudelako ohituta halakoetara, besteak beste jaso dugun heziketagatik. Sindikatuek egin dutena horrenbestekoa den nik zalantza egingo nuke, hala ere. Gure enpresara etorri dira, baina eskuorriak uztera bakarrik. Ez dute batzarrik ere antolatatu. Nonbait emakumeen kontua bakarrik denez, nahikoa iruditu zaie leku publikoetan paper batzuk uztea. Dena den, mugimendua sortu da, gaia azalera da, eta hori izugarritzko aurrerapausoa da, mundua gelditzea lortu ala ez.

♦ **Datuek ez diote gezurrik: batetik, prekaritatean dauden sektoreak dira feminizatuenak, eta bestetik, kristalezko sabaia dago, emakumeek gizonak baino ahalegin handiagoa egin behar dutela goi-karguetara heltzeko.**

**Maite:** Hori inork ez du zalantzan jarriko, ez dagoelako hori baino egia handiagorik. Hasi dira gauza batzuk aldatzen, hala ere. Nik Alcortan egin dut beti lan, eta gu hasi ginenetik gaur arte gauzak erabat aldatu dira; onerako. Niri gertatu izan zitzaidan, 18:30ean, lanaldia amaitzen genuen orduan, irten eta nagusiarri entzun

behar izatea: 'Nora doa, baina? Presa izango du medikuarengana joateko-edo?' Beste behin, enpresan greba egin genuen batean, nagusia etorri zitzaidan biharamunean esanez hurrengo greba egin behar nuenean mesedez berari baimena eskatzeko.

**Miren:** Gauzak aldatzen ari dira, bai. Lehen, gizonak sartzen zituen lantegian sartu behar ziren beste ordu eta emakumearen lana gehiago zen gizon hori zaintzea, biharamunean ere produktibo izan zedin. Gauzak aldatu dira, baina ez horrenbeste. Gaur egun ere, bikote askotan oraindik gizonak jarraitzen du lehengo martxan, batez ere gehiago kobratzen duelako, eta emakumea da lanaldia murrizten duena eta etxeko ekonomiari ekarpen txiki bat egin eta gainerako guztiaz arduratzen dena.

**Maite:** Jakina, eta gero banantzen dira, eta arazoak! Edo erretiroa hartzeko adinera iristen dira eta konturatzen dira oraindik urteak falta dituztela kotizatzeke.

**Izaskun:** Nik neuk ez dut ikusten aldaketarik; are, atzeraka goazela iruitzen zait, eta horrek min ematen dit. Batetik, lan-merkatuan sartu gara, baina beste karga guztia ez zaigu arindu, eta bestetik, modak inoiz baino lotuago gauzka. Eta horri gehituko nioke, gainera, sumisio hori gusztatzen zaigula oraindik ere. Gogorra da, baina nik hori ikusten dut gazteetan. Nolabait esatearren, burbuila batean bizi gara eta iruditzen zaigu frikienak eta ez-

kertiarrenak garela, baina gero dendan ikusten dut oraindik eskatzen ditugula es-tutxe arrosak 5 urteko neskatoentzat. Eta batzuetan ama kontziente da, eta saiatzen da kontra egiten, baina, jakina, gure seme-alabak beste mezu bat jasotzen ari dira uneoro eta indar handia egin behar dugu horren kontra.

**Esther:** Ni ere ados nago. Gure alaba nagusiak 11 urte dauzka eta txikiak 5, eta egia esan Haur Hezkuntzako umeengan orain ikusten dudana ez dut bizi izan nagusiarekin. Orain, nesken eredu eta mutilena askoz markatuago daude, itxiagoak dira. Izan daiteke ni kontzientegoa naizela orain eta gehiagotan pizten zaidala alarma, baina ez dakit. Guk geuk ere gure motxila dakargu, jakina, eta neskak eta mutilak berdin hezten ditugula pentsatu arren, ez da hala.

**Miren:** Guztiz ados zurekin, Izaskun. Iruditzen zaigu feminismoarekin asko egin dugula aurrera eta egin dugu, bestela ez geundekete orain grebaren inguruan hitz egiten, baina bistan da burbuila batean bizi garela, batzuei hitz egiten diegulako hemen hitz egiten ari garenaz eta behiak trenari moduan gelditzen zaizkigulako begira. Niri behin batek esan zidan: "Jo, berdintasuna lortu duzuenetik nola zaudenten!". Pentsa zer dagoen haren buruan. Halako espejismo batean bizi gara. Ni neu ere lotsatu egiten naiz, baina ni ez naiz sekula baztertuta sentitu eta ondorioz ez dut feminista izateko beharrik izan,



### ESTHER ALONSO

*"Zer gertatzen ari zaigu emakumeoi? Aisedenerako eta gozamenarako daukagun tartea doako zaintzak egiten pasatzen dugula. Zaintza, baina, gizarte oso baten ardura da, eta ez emakumeena bakarrik"*



### IZASKUN ESTIBARITZ

*"Greba pauso izugarria da bi arrazoigatik. Batetik, Martxoan 8 esanahiz husten ari zelako eta planto honekin zuzendu dugulako norabidea, eta bestetik, lortu delako gai hau mahai gainartzeko nazioarteko mugimendua"*



### ELENA ALONSO

*"Ezin dugu gure bizitza hipotekatu gaur umea eta bihar gurasoak zaintzera. Ez dezagun ahaztu estatuak jarri behar dituela baliabideak zaintzarako, eta gaur dirutza ari dela aurrezten maitasunaren izenean"*

harik eta zaintza lanetan hasi naizen arte. Askotan galdetu diot neure buruari nola ez nintzen konturatu ordura arte begibistan zeuden gauzetaz. Eta iruditzen zait gazte jende askori hori gertatzen zaiola, hein batean: ume-umetatik entzuten eta irakurtzen dute berdintasunaren kontu hau eta ez dira injustizia askotaz jabetzen, papelean jasota dagoelako berdintasunaren gaia.

**Amaia:** Hori da. Legez berdintasuna jasota dago, baina berdintasun moralik ez dago; eta are gutxiago, berdintasun etikorik. Eta zer esanik ez haurdun gelditzen garenean! Amatasuna oso goretsia dago, baina oso zigortua ere bai. Ahalegin berezi bat egin behar izaten dugu gure lanari eusteko eta gainera mila kontu aldrebes entzun behar ditugu. "Zu zer jaiozara, arrautza batetik?", halaxe kargu hartu behar izan nion nik behin bati. Gure lantegian, adibidez, gure lan bera egiten duten gizonak beste kobratzen dugu, baina aukera berdinak dauzkagu? Ezta pentsatu ere. Eta zein da industrian arazo nagusia? Bada, nagusi guztiak gizonetakoak direla eta ez digutela aukerarik txikiena ere uzten sabaian zulo bat egiteko, burua bistaratzen hasten garen bezain laster mailuarekin buruan kolpetxoak jo eta azpiratzen gaituztelako berriro, umeen jostailu horretan bezala. Eroso daude.

**Miren:** Lagun batek kontatua da: gure bueltako enpresa batean sartu zen emakumezko bat zuzendaritzan eta sartzearekin batera esan zuen 17:00etatik atzera ez zela bilerarik egingo. Ordura arte, jendea joaten zen etxera bazkaltzera 14:30ean, bueltatzen ziren bazkalostean lanera, 18:00etan hasten zuten bilera, luzatzen zen 20:00ak arte, eta afaltzera gero. Bada, emakume horrek egindako keinu horrekin bakarrik gauza asko amaitu daitezke.

♦ **Hara! Euskarari gertatzen zaion kontu bera gertatzen zaigu hortaz. Errazagoa da debekuaren kontra egitea permisibitatearen kontra egitea baino.**

**Elena:** Hori da.

♦ **Ahalduntze eskolak, ahalduntze tailerak... eskaintza asko handitu da. Emakumea kontzientegoa da orain?**

**Elena:** Antolatu, antolatzen ditugu, baina begira: langabezia dauden artean kopuru handiena 40 urtez gorako emakumeak dira eta asko eskolagabeak dira. Ez dute aukerarik izan, baina orain ere, Debegesak antolatzen ditu ikastaroak gizarte-bazterketa jasateko arriskuan daudenentzako, ematen dute izena eta berehala lagatzen diote etortzeari, umea ez bada, ama, aita edo beste senideren bat zaindu beharra dutelako. Eta jakina, ezin dute zurrunbilatik irten, derrigortuta egongo direlako lanik prekarioenak eta soldatarik eskasena onartzera eta baldintzarik okerrenetan lan egitera.

**Izaskun:** Klasea gurutzatzen da hor. Eta feminismoa klase guztietan dago, baina bateko eta besteko feminismoak ez dute zerikusirik. Nola kudeatzen dugu hori?

♦ **Grebaren inguruan beste ahots edo gogoeta batzuk ere entzun ditugu. Amelia Barquinek, adibidez, Ayomide Zuri feminista beltzaren hausnarketa ekarri digu. Zurik dio grebarako arrazoiekin bat egiten duela baina ez duela hor ikusten bere burua. Eta galdera egin du Barquinek, zaintza-lana eta lan ordaindua gauza bera den kasuetan fokoa jarrita. Nola bermatuko dugu etxeko langileek grebarako duten eskubidea? Nola jokatu dugu greba hau ez izateko klase ertaineko emakume autoktono zurien pribilegioa batez ere?**

**Esther:** Hein batean ez zaio arrazoirik falta. Emakumea, zaintzailea, atzerritarra... Horra *top ten*-a. Nola planteatuko diegu greba egiteko? Ez dute aukerarik ere barren! Hemen bakoitzak baloratu behar du nola egin zarata. Izan daiteke lanuzte batekin, izan daiteke reportaje honeterako aurpegia emanda...

**Amaia:** Hori da. Ditutzen baliabideengatik, duten lanagatik eta datozen lekuetatik datozelako, emakume askorentzat feminismoa bera gauza abstraktu bat da. Ni neu ere lanera noa, egitekotan bi langilek egingo genukeelako greba gure enpresan, eta horrek ez daukalako zentzurik. Horren ordeztu nahiago dut emakumeok egin ohi ditugun lanak bistartzeko beste

zerbait egin.

**Izaskun:** Bola handitzen joatea da hemen kontua. Guk ere itxi genezake denda besterik gabe edo joan gaitzke Txankakua elkartera eta han gaiaren inguruko gogo-eta sustatu. Hori bai, ni ez noa besteei zer egin behar duten esatera. Iruditzen zait, gainera, hori ez dela emakumeon estiloa.

**Elena:** Bistan da kontua ez dela emakume gutzietei greba egitea eskatzea, batzuei ezinezkoa zaielako; gehiago da emakumeek bizi duten azpiratzea salatzea, baita emakume horiena ere. Ez gara horretan sartu behar. Grebarako deialdia egin izana bera lorpen bat da; ez dezagun zatartu.

**Miren:** Lanean ari denari edo umeak zaintzen ari den horri odierazi behar diogu bere lan prekarioa ere kontuan hartzen ari garela protesta honetan. Ohartarazi behar diogu lan hori egingo ez balu, gure sistema hau gelditu egingo litzatekeela. Horregatik irizten diot garrantzitsua parkera joan eta han daudenei ohar bat edo banatzea, beharbada asko eta asko gustura egongo direlako, seme-alabekin egoteko aukera dutelako eta gainera sozializatzeko beste modu bat ere badelako, baina zer gertatzen da momentu horretan parkean egon nahi ez dugunean? Horregatik manifestaziora joatea baino garrantzitsuagoa da jabetzea egiten ari garen horregatik eskubide batzuk dagozkigula. Begira, Estatu Batuetan jardun zirenean droga mendekotasunagatik edo beste edozein arrazoigatik bazterketa egoeran bizi zirenak egoera horretatik ateratzeko bideak aztertzen, mila modu aztertu zituzten, baina azkenean frogatu zuten jende horri etxe bat emanda, emanda aingura edo oinarri hori, lortzen zutela berriz gizarteratzea eta aurrera egitea [Houseing First metodologia delakoa]. Eta han oinarria etxea zena, hemen iruditzen zait zaintza dela.

♦ **Sistema iraultzeko, gutxien-gutxienez zaintza beste modu batera bermatu beharko litzatekeela esan nahi duzu?**

**Miren:** Bai. Elenak esan du ikastaroetara joateari uzten diotela emakumeek zaintza ardurak bete behar dituztelako.

Bada, goazen ume edo nagusien zaintza hori beste modu batean bermatzera, eta emakume horiek aukera izango dute behar duten prestakuntza jasotzeko eta gaur irten ezin duten zurrunbilo horretatik irteteko. Lagun batek esaten zidan aurrekoan: emakume ijitoek zer behar dute lehenengo eta behin gizarteratzeko? Haurtzaindegi bat, umeak han laga eta ikasi ahal izateko. Zaintza da ardatza. Behingoz jabetu behar gara gure enpresak pikutara doazela zaintzaz arduratzen ari garenok zaintzan planto egiten badugu. Sistema kapitalista nazkagarri hau azpitik ari gara mantentzen. Pentsa zenbateraino ari garen mantentzen, langile berriak ere geuk sortzen ditugula! Eta emakumeok ekilibro lanetan ari gara uneoro, gizonezkoak lasai egoteko edo nahiago bada 12 orduz lan egiteko aukera izan dezaten, baina horixe, besterik gabe lan produktiborako egon daitezten. Eta bitartean, gu ari gara lanean eta ari gara beste karga guzti horri eusten. Eta hori, lagunok, sekulako buru-akidura da.

**Elena:** Zaintza ez da gure ardurara, edo ezbehintzat gurea bakarrik. Ezin dugu gure bizitza hipotekatu gaur umea eta bihar gurasoak zaintzeko. Ez dezagun ahaztu estatuak jarri behar dituela balibideak zaintzarako, eta gaur dirutza aurrertzen ari direla maitasunaren izenean eta zaintzaileen desesperazioaren kontura. Sistema guzti hori, Mendekotasun Legearena-eta, jausi da. Bertan behera laga zuten, ustez diru eskasiagatik, baina beste gauza asko ez dituzte laga. Lehentasunen kontua da.

**Esther:** Plantoak berezibiko garrantzia izan beharko luke zaintza lanetan. Zaintza emakumeen lana delako gaur ehuneko handi batean eta emakumeok urteetan jasaten dugun karga fisiko eta psikologikoa izugarria delako. Baina hori guztia ez da ikusten, jakina, eta ikusten ez denak, baliorik ere ez du. Gaur pribatua den hori publiko egitea izan behar da gure lana. Interdependentzian bizi gara hemen, eta biziitzako uneren baten denok behar izango dugu edo behar izango dugu beste norbaitek zain gai-




### MAITE UNZUETA

*“Betikoan gaude. Goitik hasi behar da hemen pausoak ematen. Politikariak hasi behar dira berdintasunean diru gehiago inbertitzen. Baina, zer? Ezer ez”*



### MIREN VIVES

*“Amaia Perez de Orozko ekonomiak ondotxo dio ikuspegia aldatu behar dugula eta erdigunean merkatua jarri beharrean, bizitza jarri behar dugula. Ikusi behar dugu ekonomia badagoe-ela merkatutik kanpo ere”.*



### AMAIA KALTZAKORTA

*“Zein den industrian arazoa? Nagusiak gizonezkoak direla eta ez dituzte aukerarik txiki-ena ere uzten sabaian zuloa egiteko, burua bistaratzen hasten garenean kolpetxo jo eta azpiratzen gaituztelako berriro”*



tzan. Beraz, hau gizarte oso baten ardua da, eta ez emakumeena bakarrik. Zer gertatzen zaigu emakumeoi? Atsedenerako eta gozamenerako daukagun tartea doako zaintzak egiten pasatzen dugula. Gainera, "maitasun" hitza aipatzen digute beti halakotan, eta egin ezean, geure buruak egiten ditugula ez dakit zeren errudun. Zaintzaileek prestazio ekonomikoa eskatzen dute eta hain justu ere gehien eskatzen den laguntza mota laguntza ekonomikoa da. Eta zer? bada, laguntza horrek ez duela ematen ezertarako eta gainera zurrumbilo horretatik irtetea eragozten digula.

**Miren:** Horregatik dio Amaia Perez de Orozko ekonomista feministak gauzak baloratu behar ditugula parametro ekonomikoetatik kanpo ere. Berak salatzen du ekonomia dirua baino ez dela pentsatzen dugula eta oker handia dela hori. Hau da, lan bakarra ordaindutakoa dela eta ongizatea izatea merkatuan kontsumitzea dela uste dugula, eta oker gaudela. Ikuspegia aldatu behar dugula dio, eta erdigunean merkatua jarri beharrean, bizitza jarri behar dugula. Konturatu behar dugula ekonomia badagoela merkatutik kanpo, eta lan asko daudela dirurik mugitzen ez dutenak, baina bizitzarako beharrezkoak direnak.

♦ **Kontziliazioaren inguruan inkesta bat egin zuen Elgoibarko Udalak eta ondorioetako batek zioen oso arrazoi ezberdinengatik eskatzen zutela kontziliazioa gizonak eta emakumeek. Gizonak sartu dute kontziliazioaren gaia agenda-politikoan?**

**Elena:** Bai. Enpresak hasi dira lan-ordutegiak murrizten edo egokitzen gizonak kirola egiteko denbora eskatzen hasi direnean. Triste da, baina hala izan da.

Konturatu zarete inoiz kirol proba baten bueltan ze jende mugitzen den? Ikusiko dituzu gizonak triatloian eta emakume pila bat aulkitxoekin umeak zaintzen, trastez karga-karga eginda.

**Izaskun:** Hori orain 20 urte ere bazen. Gure semeak 7 urte zituenean oroitzen bat kontatuko dizuet. Han geunden gu, senarra, semea eta hirurok, mendi-gain batean eta gure ondora bi emakume batu ziren seme-alabekin. Halako batean ailegatu ziren gizonak bizikletan eta atera zituzten emakumeek patata tortilak eta jateko guztiak eta senarrak esan zidan: 'Hau da, hau, tokatu zaidana! Sekula ez dut nik hau ikusiko'. Eta erantzun nion: 'Ba ez, sentitzen dut baina ez duzu ikusiko'. Eta kontuz, emakume asko gustura egongo direlako horrela, eta hori ere, jakina, errespetatzekoa da.

♦ **Eta gizonak aipatu ditugula... Egongo dira batzuk haserre-antzean kargu hartuko digutenak: 'Eta zuek bakarrik grebara? Guk orain arteko M8 guztietan babestu zaituztegu. Eta beste batzuk galduta egongo dira, zer egin ez dakitela. Zer esango zeniekete?'**

**Izaskun:** Bigarrena normalagoa iruditzen zait, gauza berria delako hau. Baina erraza dute. Ez daude grebara deituta, baina asko egin dezakete. Ni joango naiz protestara eta egin zuk beste lanak, normalean nik egiten ditudanak, eta besteetan ere egiten badituzu, bada ondo, baina egun horretan agertu babes emakumeari. Lagundu, babestu eta eman bidea emakumeon protestari; ikusgai egin emakumeek egin ohi ditugun lanak.

**Elena:** Eskerrak emango nizkieke babes agertu nahi duten gizon horiei, baina hori bai, hau gure greba da. Gizonak, etorri manifestaziora beste ardurak beteak ba-

dituzue, baina ez jarri lehenengo lerroan. Entzun emakumeoi.

**Miren:** Ondo legoke egun horretan umea zaindu behar duen gizonak kartel bat ateratzea bizkarrean, erakusteko bera egiten ari den hori beste askotan emakume batek egiten duela eta lana dela.

♦ **Hezkuntza sistema bera gaur egungo sistema kapitalista eta patriarkala erreproduzitzeko tresnetako bat ere badela ohararazi dute Bilgune Feministatik. Genero-rolak eta genero-estereotipoak apurtzeko gutxitxo egitea egosten zaio Hezkuntzari. Zer diozue?**

**Elena:** Orokorrean, hezkidetzak eta tratutxarren kontrako lanketa ez dago Hezkuntzan txertatuta eta hori goitik zehaztuta etorri beharko litzateke, hezkuntza sistema ez dadin patriarkala eta androzentrikoa izan.

**Amaia:** Askotan esaten zaigu DBHn hasten direla gai horiek lantzen, baina hezkidetzak ume-umetatik hasi behar da lantzen, eta Haur Hezkuntzan ez dago programarik. Eta esango nuke ez dagoela ezer, baina ez profesionalak ez dutelako nahi, baizik eta beti horrela egin izan delako.

**Esther:** Gurasook barrura ere begiratu behar dugu. Batzuetan zenbait gairi buruz beste guraso batzuekin hitz egitea bera ere zaila da, eta iruditzen zait guk ere egin behar dugula autokritika bat, ikasi dugunari buelta bat emateko.

**Elena:** Konturatzen al zarete Agenda 21 martxan jartzeko zenbat baliabide izan dituzten ikastetxeek? [Nazio Batuek garapen jasangarriari eusteko sortutako programa da Agenda 21]. Zenbat diru jarri duen Eusko Jaurilaritzak programa hori garatzeko? Eta Berdintasunerako, zer? Ezer gutxi

**Miren:** Alborgin Gutunean, Agenda 21 programak hiru ardatz nagusi ditu: ekono-

mia, ingurumena eta gizartea, baina hirugarren hori, gure ingurunea bizigarri eta bidezkoa egiteko ezinbestekoa den hori, ahaztu egiten da beti. Agenda 21eko programako eskeman, baina, hirugarren hori galdu da. Gizarte kontu hauek ez ditugu sartzen, nolabaiteko konplexuagatik, iruditzen zaigulako besteek bizimodua epaitzea dela eta horrek neoliberalismo kutsua daukala. Eta hori gertatzen zaigu gurasotik gurasora ari garenean ere eta iruditzen zait hor ikastetxeek badutela zerbaite gehiago egitea. Agenda 21ek ekarri du aldaketa eta igarri dugu gure seme-alabetan. Pentsa esazue non geundekeen baliabide horiek guztiak erabili balira eskoletan hezkidetzaren programak sustatzeko.

**Maite:** Betikoan gaude. Goitik hasi behar da hemen pausoak ematen. Politikariak hasi behar dira Berdintasunean diru gehiago inbertitzen. Baina, zer? Ezer ez. Entzun al duzue PPKo beste hori esaten greba hau ere japoniarren modura egin beharko genukeela? Ordu gehiagorik lan egiteko ez du ba eskatu! Gehiago? nola, baina?

**Elena:** Duda gabe. Goitik hasi behar da. Adibidez, gurasotasun baimenekin. Legeak derrigortuko balu Suedian eta Finlandian moduan aitek eta amek lau hilabeteko baimena hartzea, beste egoera batean geundeke. Gaur, batak zein besteak hartu dezakete, baina zer gertatzen da halakoetan? Emakumeak hartzen duela gehienetan, diru gutxiago irabazten duelako.

**Arutzeta da irtenbide bakarra, zure ustez, Elena. Zer diozue besteek? Derrigorren bidetik etorriko da herritarrek kontzientzia hartzea?**

**Amaia:** Bai. Nik behin galdetu nuen enpresan Berdintasun Planik ba ote geneukan, eta bai, bageneukan, baina kaxoian ondo gordeta. Inork ez zekien zer jartzen zuen ere. Berdintasun Plana baldin badago, enpresa guztietan gutxieneko berdinak bete beharko liriateke. Baina enpresa munduan derrigorra izan behar da hau, diru-laguntza gabe gelditzeko arriskurik ez badute edo isunarekin

edo esportatzeko debekuekin mehatxu egiten ez bazaie, ez dutelako ezer egiten. Elgoibarren bertan, gure erreferentziazko enpresan, Danobaten, zenbat emakume daude kontseilu errektorean? Zero. Zenbat emakume daude lehenengo ehun postuetan? Zero. Zenbatek eskatu dute lanaldia murriztea? Danobaten historia osoan, bost-seik. Eta gure inguruan eredia da Danobat. Ba hor daukagu aukera, Danobateko lagunok. Emakumeak izan behar dituzue agintepostuetan. Horregatik diot legez behartuta ez baldin badaudela, jai dagoela.

**Miren:** Kuriosoa da, baina 2005eko Berdintasun Legeak aipatzen zuen Hirigintza plangintzan egiten diren dokumentuetan generoaren eraginaren inguruko azterketa eginda egon behar dela. Ba inork ez du eskatu, harik eta iaz, Boadilla del Monte izeneko herriko plan orokorra bertan behera gelditu zen arte, norbaitek salatu zuelako ez zeukala generoaren eraginaren inguruko azterketa. Bada, hamahiru urtean ez da ezer garatu horren inguruan eta gaur da eguna inork ez dakiela zer jaso behar den dokumentu horretan. Eta azkeneko hilabeteetan dei pila bat ari gara jasotzen horren inguruan galdetzka. Hirigintza Plana eginda dute, baina dokumentu hori behar dute, onartua izango bada. Espedientea betetzeko bakarrik nahi dute, baina bueno, horrek ere badu bere alde ona, sikiera zerbaite egingo dutelako.

**Elena:** Berdintasun Legea martxan jarri zenean, arazoa sortu zitzaizen alderdiei eurei ere emakumeak topatzeko, kupoak bete ahal izateko. Eta zergatik? Politika eta enpresa munduko zirkulo guztiak erenak zirelako eta zirkulo horietan ez zegoelako emakumerik. Nolanahi ere, nik esan beharra daukat orain Foru Aldundia lan handia ari dela egiten gai honetan. Berdintasun Ordenantza ateratu du, eta diru-laguntza guztietan txertatu du. Eta nik igarri dut, bereziki kirol elkarrean jardunean. Diru-laguntza lortzeko, neskak kirol munduan aritzeko zer egiten duten azaldu behar dute eta martxan jarri behar dituzte neurriak.

## GREBAREN INGURUKO HAINBAT JAKINGARRI ETA AGENDA

**E**redu ekonomiko honek zapaltzen gaituelako, indarkeria matxistak jipoitzen gaituelako, arrazakeriak hiltzen gaituelako eta kultura patriarkalak baztertu, objektu bihurtu eta estereotipatzen gaituelako" lau ardatzen inguruan antolatatu dute Martxoaren 8ko greba: enplegua, zaintza, kontsumoa eta hezkuntza. Batetik, enpresetan soldata pean ari diren langileei eta ikasleei launa orduko bi lanuzte egiteko eskatu dute deitzaileek: goizean, 11:00etatik 15:00etara, eta arratsaldean, 18:00etatik 20:00etara. Bestetik, merkatuak lan gisa aitortzen ez dituen lanak ez egiteko eskatu diete emakume guztiei: etxeko lanak ez egiteko, eta ezta zaintza-lanak ere. Eta azkenik, kontsumo greba egiteko ere eskatu dute, eta bereziki enpresa eta saltoki handietan erosketarik ez egiteko.

Hona, datorren asterako Mendaron eta Elgoibarren antolatutako dutena.

### MENDARO.....

♦ Martxoak 8, osteguna: Leiho eta balkoietatik amantalak eskegitzera deitu du Tratu Onen Aldeko Taldeak eta baita besoko moreak jantzera ere. Era berean, 18:00etan, Eibarren egitekoa den mobilizaziora elkarrekin joateko deia egin diete herritarrei.

### ELGOIBAR.....

♦ Martxoak 7, asteazkena: Dorleta Kortazar ipuin kontalaria, liburutegian. Bi saio izango dira: 17:00etan, HH5eko haurrentzat, eta 17:30ean, LH 1 eta LH2koentzat.

♦ Martxoak 8, osteguna, 19:30ean, Martxa morea, Elgoibarko Emakumeen Batukadak girotuta. Leiho eta balkoietan amantalak eskegitzeko eta kalera besoko morea jantzita irteteko eskatu dute.

**Oharra:** Elgoibarko Izarrako langileok bat egin dugu Martxoaren 8rako antolatutako grebarako arrazoiekin eta langile emakumezkoek lanuztera batuko gara egun horretan.

## Jabi Muñoz mendaroarrak irabazi du Mekatar Iriondo Xake Txapelketa



Jabi Muñoz irabazlea Elgoibarko Xake Taldeko Mikel Leonekin.

**B**ost hilabeteen lehia aritu ostean, emozioz eta tentsioz beteriko azken segunduetan erabaki zen Mekatar Iriondo Xake Txapelketaren seigarren ekinaldia. 45 xakelari lehiatu dira aurten, inoiz baino gehiago, eta inguruko herrietako xakelariak ere hartu dute parte, Azpeitia, Azkoitia, Eibar, Urnieta, Soraluze edo Mendarokoek, besteak beste. Otsailaren 22an jokatu zuten finala Iriondo tabernan, partida guztiak jokatu diren lekuan. Jabi Muñoz mendaroarrak eta Aitor Gallastegi elorriOarrak lehia biziko finala jokatu zuten. Jokalari bakoitzak 60 minutu zituen partida garatzeko, eta partidaren une erabakigarria iritsi zirenerako, minutu bat bakarrik falta zitzaien partida amaitzeko. Presaka eginiko azken mugimenduetan Jabi Muñoz moldatu zen hobeto, eta berak irabazi zuen finala. Kopako Finalean, berriz, Juan Carlos Valor azkoitiarrak irabazi zion Sergio Fernandez elgoibartarrari.

## Ibon Serrano bigarren Izabako Neguko Triatloian



Erronkari Bailarako Neguko Triatloia 8. ekitaldia jokatu zuten domekan Izaban. Antxitxika 8,3 kilometroko ibilbidea egin ostean, bizikletako tartean San Martin Harria mendatea igo behar izan zuten 22 kilometroko ibilbidean. Azken proban, iraupen eskikoan, hamar kilometro egin zituzten Larra Belaguako eski estazioan. Ibon Serranok bigarren postua eskuratu zuen beteranoetan (40-49 adin tartean), iaz lortu zuen hirugarren postua hobetuz. Gainera Euskadiko txapelketa ere bazen Izabakoa.

## Bigarren postua Arkaitz Iruretarentzat eta Javi Dominguezentzat Alta Ruta Pyrene mendi eski lasterketan

Arkaitz Iruretak eta Javi Dominguezek osatutako bikoteak ezin izan zuten arren iazko garaipena errepikatu, bigarren postua lortu zuen Alta Ruta Pyrene mendi eski lasterketan. Linzako lepotik hasi eta Petretxema, Hiru Erregeen Mahaia, Budogia eta La Pakiza de Linzola artean jokatu zuten lasterketa, euskal herritarrentzat horren ezagunak diren parajeetan.



Angel Prado eta Luis Royo Jakako eskiatzailek irabazi zuten proba. Iruretak eta Dominguezek mendi eskiko Alttoy-Ternua proban hartuko dute parte datorren asteburuan, Luz Saint Sauverren (Okzitania). Eskiatzaile elgoibartar gehiago ere lehiatuko da: Iñigo Lariz Igor Alzelairekin, Iker Leonardo eta Imanol Garaizabal; eta, Iñaki Laskurain Andoni Gabilondorekin.

## Lagun Taldeak bigarren ikastaro saioa eman du Mendaron

Elgoibarko Lagun Taldea txirindulari eskolako kideek bizikletan ibiltzen ikasteko bigarren ikastaroa eskaini zuten aurreko asteburuan Mendaron. Lehen Hezkuntzako umeei zuzendutako ikastaroan errepidean segurtasunez ibiltzeko aholkuak eta jakin beharrekoak azaltzen dizkiete koskortu goei. Txikiagoei bizikleta orekaz eta trebeziaz maneiatzen irakasten diete.





## Urrezko bi domina Sasiainentzat eta beste bat Hernandezentzat Euskadiko Txapelketan

Gipuzkoako txapelketan lortutako domina kopurua lau berdindu dute Mintxetako atleten pista estaliko Euskadiko atletismo txapelketan, baina hiru domina urrezkoak izan dira oraingoan. Nerea Sasiainek eginiko lana nabarmendu behar da, urrezko bi domina irabazi baitzuten, 200 eta 400 metroko lasterketetan. 400 metroko proban, gainera, Gipuzkoako errekorra ondu zuen Sasiainek, bigarrenen hil honetan, joan den otsailaren 10ean ondu baitzuen errekorra aurrenekoz. Orduan eginiko 57,43ko markari 15 ehuneko jan dizkio antixikari elgoibartarrak eta 57,28 segundoan laga du marka berria. Martin Hernandezek ere urrezko domina irabazi zuen, 800 metroko lasterketan, 2:05:47ko denbora eginda. Eider Igleasiak lortu zuen laugarren domina Mintxeta taldearentzat. Igleasiaz luze jautsian lehiatu zen, eta zilarrezko domina irabazi zuen bost metro eta zazpi zentimetroko jauziari esker. Usua Lopezek irabazi zuen proba 5,26 metroko jauziarekin.



## Haundi ikustera Soroluzera joateko autobusa, doan



Haundik Soroluzeren aurka jokatu du zapatuan Ezozi futbol zelaian, 16:30ean. Igoera lortzeko ahaleginean partida garrantzitsua dela-eta, autobusa antolatu du C.D. Elgoibarrek Soroluzera joateko, doan. Autobusa Txankakoako zubiitik irtengo da 15:30ean. Interesatuak Jai Alai eta Kaia tabernetan eman beharko dute izena, ostiraleko 18:00ak baino lehen. C.D. Elgoibarren kamisetarekin eta bufanda zurigorriekin azaltzeko ere eskatu die taldeak zaleei.

## Gimnasta elgoibartarrak eskolarteko gimnasia erritmikoko txapelketan lehiatu dira



Gipuzkoako eskolarteko gimnasia erritmikoko txapelketa jokatu zuten aurreko zapatuan Bergaran. Alebinak eta infantilak lehiatu ziren, bakarka zein taldeka. Bertan izan ziren besteak beste, Bergara, Arrasate, Aretxabaleta edo Eibarko gaztetxoak. Eibarko taldean, Gimnasia Ritmika Ipuruan, dihardute, hain justu ere, zenbait gimnasta elgoibartarrek: Uxue Etxeberria, Nora Mujika, Joselin Padilla, Haizea Carrascal, Susane Cano eta Irune Del Amo.

## June Loidi Espainiako eskubaloia selekzioaren deialdian

Jubenil mailako Espainiako selekzioarekin jokatzera deitu dute June Loidi. Espainiako hautatzaile Alfredo Rodriguezek hamasei jokalarari deitu ditu eta horien artean da Sanloko Tecnifuelle taldeko ezker hegalekoa, deialdiko euskal jokalaririk bakarra. Entrenamendu saioak egingo dituzte Madrilgo Pinto herrian, martxoaren 25etik 29ra bitartean. Lagunarteko partida bat ere jokatu dute, Ohorezko Zilarrezko mailan jokatzeko duen Getasur talde madrildarraren aurka.



**LANA.....**  
**Eskaerak**

Pertsona nagusiak zaintzeko prest. Interna moduan.

☎ 634 709 366

Adinekoak zaintzen lan egiteko prest. Orduka, asteburuetan zein gauzez. (Vanía Suarez).

☎ 632 229 972

Adinekoak zaintzen edo etxe garbiketan lan egiteko prest.

☎ 632 877 170/631 919 766

Adineko pertsonak zaintzeko prest. Egunez zein interno.

☎ 628 529 252

Adinekoak edo umeak zaintzeko zein garbiketa lanetarako prest.

☎ 642 248 448

Haurrak edo pertsona nagusiak zaintzen, portalak garbitzen edo sukaldean laguntzen egingo nuke lan.

☎ 602 047 812

Adinekoak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko prest nago.

☎ 653 160 233

Adinekoak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko prest nago.

☎ 631 887 341

Etxebizitzak edo atariak garbitzen zein umeak zaintzen egingo nuke lan.

☎ 627 819 217

Garbiketa lanak egingo nituzke orduka, eta adinekoak zaintzen ere egingo nuke lan, orduka, egun erdiz zein asteburuetan. ☎ 652 668 877

Tabernak garbitzen edo adinekoak zaintzen (orduka nahiz barne langile moduan ere bai) lan egiteko prest. Berehala hasteko geru.

☎ 632 896 116

Adinekoak zaintzen eta etxe garbiketan lan egiteko geru. Adinekoen zaintzako prestakuntza ikastaroa egiten ari naiz.

☎ 659 578 601

Adinekoak zaintzeko prest. Orduka, asteburuetan... ☎ 674 579 736

Adinekoak zaintzen, ospitaletako gaueko zaintzan eta garbiketan lan egiteko geru. Esperientzia eta erreferentziak ditut. ☎ 626 407 923

Garbiketan, adinekoak zaintzen, ospitaletako gaueko zaintzan eta asteburuetan interno lan egiteko geru.

☎ 631 506 763

Baserriko lanetan, sukalde laguntzaile, adinekoak zaintzen eta obretan lan egiteko prest. Esperientzia daukat.

☎ 631 680 819

Garbiketa lanak egiteko eta pertsona nagusiak zaintzeko prest. Esperientzia eta gidabaimena ditut.

☎ 688 712 075

Adinekoak eta umeak zaintzeko prest. Arratsaldeetan eta asteburuetan. Orduka.

☎ 612 493 242

Adinekoak zaintzen eta garbiketa lanetan aritzeko prest. Arratsaldez.

☎ 638 338 816

Garbiketa lanak egiteko eta pertsona nagusiak zaintzeko prest. Esperientzia daukat. ☎ 688 712 075

**Eskaintzak**

Pertsona bat behar da, goizez, bi ume zaintzeko. ☎ 660 504 445

**ETXEBIZITZAK.....**

lau gelako etxebizitza alokagai Elgoibarko erdigunean, San Inazio kalean. ☎ 615 781 629

Pisua hartuko nuke alokagai Elgoibarren. ☎ 638 338 816

**GARAJEAK.....**

Santa Ana kaleko 2. zenbakian garajea salgai. ☎ 658 741 463

Merkatu txikiko iragarkiak hiru astez argitaratzen ditugu. Salmenta eta alokairu iragarkiak ordaindu egin behar dira. Etxebizitzak, garajeak eta lokalak: 18€ (alokairua) - 22€ (salmenta). Autoak saltea: 18€ . Bestelakoak: 10€. Iragarkia irertratua jarriz gero, 6€ gehiago ordaindu behar dira.

**BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK:**

Etxebizitzak, garajeak eta lokalak: 15€ (alokairua) - 20€ (salmenta). Autoak saltea: 15€. Bestelakoak: 8€. Iragarkia irertratua jarriz gero, 5€ gehiago ordaindu behar dira.



Consejo Estatal de Colegios de Administradores de Negocios  
Euzkoako Erakunde Administrazioaren Erakunde Nazionala



**ROSA Mª PINTADO**

Etxaldean Administrazioarako-Gradu ikasketen arduraduna Alcalá de Henaresko Unibertsitatean, eta Gipuzkoa, Bizkai eta Arabako, Errioxako eta Kantabriako ikastetxeetan. Zuzenbidean lizentziatua. Kolegiatu zenbakia: 749

**660 969 679**  
**rosapf@telefonica.net**

**Hezetasan arazo bat dago gure eraikinean. Hasieran komunitateko aseguruak esan zuen fatxadakoa zela arazoa, baina komunitate-plizak ez zuen ordaindu. Ondoren, antzerako ezbehar baten berri eman genion komunitate-polizari eta esan zigun hezetasuna leihotatik sartutakoa zela gomak hondatuta edo gaizki ipinita zeudelako. Fatxadak itxuraz ez du arazorik, baina etxe-jabe batek dio komunitateak egin behar dituela konponketa lanak. Beste bizilagun batzuek, ordea, arazoa beraien kabuz konpondu dute. Jakin nahi nuke nork ordaindu behar di-tuen gastuok.**


Ez da kontu erraza. Legeak dio guztien elementuak direla fatxadak, terrazetako kanpo-estaldurekin, balkoiekin eta leihoeekin (itxura barne) eta itxiturak. Arazoa, berez, garrantzitsuagoa da eraikuntza akats baretik datorrelako. Izan ere, eraikinaren hermetikotasuna ez dago bermatuta egoki zigitatuz. Legeak dio konponketak komunitateak egin behar dituela, beharrezkotzat jo behar direlako eraikinaren eta honen zerbitzu eta instalazio komunentzako mantenu lanak. Horri gehitu behar zaizkio oinarriko segurtasun, bizigarritasun eta irisgarritasun baldintzak, baita apaintzeko eta administrazioak ezarritakoak, kontserbazio legeri dagozkionak.

**Aholkua: Eraikuntza akatsen konponketa lanek eragindako gastuak orokorrak dira, beraz, komunitateak ordaindu behar ditu.**



## ZORIONAK ZURI


Argazkiak eguzten eguerdia (12:00ak) baino lehen ekarri behar dira BARREneko bulegora, edo [barren@elgoibarkoizarra.eus](mailto:barren@elgoibarkoizarra.eus) e-postara bidali.



Zorionak etxeko preziosari bere 11. urtebetetzean. Muxu bat etxekoan, eta bereziki, Manexen partetik.



Zorionak, **Nora!** Jadanik 6 urte handi! *Let's Rock!*




Astelehenean 4 belarri tirakada jaso zenituen, **Ekain!** Zorionak eta musu handi bat familia osoaren partetik.




Zorionak, **Nora**, martxoaren leian 6 urte bete zenituelako. Oso ondo pasa eta muxu handi bat etxekoan partetik.




Zorionak, **Maialen!** 6 urte bete dituzu gaur! Patxo handi bat familia osoaren partetik, eta bereziki, Jonen partetik.



Zorionak, **Harritz**, 7 urte bete dituzulako. Etxeko guztion partetik muxu handi bat.



Zorionak, **Oxel**, igandean 9 urte! Harrapatu duzu berriz Bixen! Ondo pasa.



Iritsi da egun! Zorionak eta patxo handi bat etxekoan partetik. Segi orain bezain jator. Mua, mua, reketemua!



Zorionak, **Victor**, otsailaren 27an 9 urte bete zenituelako. Zure arreba Anaren partetik.



Amaia Saenz Elizondo (Kol. 1452)  
Eider Telletxea Agirre (Kol. 1045)

**siu**  
fisioterapia zentroa  
Aita Agirre plaza, 7

Eskaintza berriak!  
Gure zerbitzuen aukera handituz.

943 257 154



### INER CARAVAN

Itxaspe Auzoa, 3  
20829 Itziar (Gipuzkoa)  
943-05 08 03 • 664 68 58 97  
[www.inercaravan.eus](http://www.inercaravan.eus)

- Autokarabanen, karabanen eta furgonetan salmenta, alokairua eta konponketa.
- Taller zerbitzua, denbora luzerako aparkalekua, garbiketarako gunea, uren karga eta deskarga.
- Karabaningerako eta kanpinerako osagarrien denda.
- Homologazioak, kanpinerako egokitzapenak...
- 4000m2 baino gehiagoko instalazioak.
- Moto guztietako ibilgailuen konponketa.



RF8 183/12

**Uzuri** ELGOIBAR - DEBA  
optika audio

San Frantzisko, 21 - Elgoibar  
Tel.: 943 740 359 [www.uzuroptika.com](http://www.uzuroptika.com)



**ARNETTE  
BETAURREKO  
OSOA**

Zatoz probatzera!  
Galdetu baldintzak!

**89€**tik hasita  
P.V.P. gomendatua

Erretratu bakarrek agurra: 4'50€.  
Argazki bikoitza: 7€. Hirukoitza: 9€.  
Hiru lagunetik gorako taldeak: 15€

#### ELGOIBARKO IZARRAKO BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK

Erretratu bakarrek agurra: 3'50€.  
Argazki bikoitza: 6€. Hirukoitza: 8€.  
Hiru lagunetik gorako taldeak: 12€

Argazkiak eguzten eguerdia (12:00etarako) baino lehen ekarri behar dira BARREneko bulegora, edo [barren@elgoibarkoizarra.eus](mailto:barren@elgoibarkoizarra.eus) e-postara bidali.

## 2 BARIXAKUA

**18:30-20:30** Odol-ematea. Elgoibarko Odol Emaileen Elkartearen (Anbulategi ondoan).

**19:30** Dokumentala: *Oroimina loretan. 30 urte deserrian. Kaxa hutsak* proiektua. Musika Eskolako auditoriumean.

## 3 ZAPATUA

**14:30** Txarriboda bazkaria, Idotorbe-San Pedroko elkartearen. 25 euro. Izena emateko: 616 524 106 Amaia.

## 4 DOMEKA

**Aingeru Guardako jaiak**

**11:45** Iñigo Loiola, Leandro Esnaola eta Asier Landa trikitilariak, Alexander Idoeta eta Iñigo Arrizabalaga bertsolariak eta herri-kirol saioa.

**12:30** Meza Nagusia.

**Ondoren**, trikitilariak eta bertsolariak.

## 7 EGUAZTENA

**17:00etan eta 17:30ean** lipuin ez sexistak. *Heldu eskutik*. Dorleta Kortazar. 17:00etan HH5eko haurrentzat eta 17:30ean LH1 eta LH2koentzat. Udal liburutegian.

## 8 EGUENA

**18:00** Meka eta IMHren eskaintzari buruzko informazio saioa. Arreiturre Institutua-Meka Lanbide Eskolako bilera gelan.

**19:30** Martxa morea. Elgoibarko emakumeen batukada. Kalegoen plazan.

## 9 BARIXAKUA

**20:30ean eta 22:30ean** Antzerkia: Oxido (umore garratza). Pez Limbo. 20:30ean (gaztelaniaz), 22:30ean (euskaraz). Kultur Etxean. Sarrera doan. **22:00** Bertso saioa: *Motxailak bertsoetan*. Bertsolariak: Amets Arzallus, Madalena Arzallus, Andoni Egaña eta Jone Uria. Gai-jartzailea: Maialen Olazabal. San Agustin Kulturgunean.

## Zinea (Herriko antzokian)



### 'Errementari'

2 Barixakua, 21:30 (Gaztelaniaz)

3 Zapatua, 19:00  
(Euskaraz, azpitoluak gaztelaniaz)  
22:15  
(Euskaraz, azpitolurik gabe)

4 Domeka, 19:00  
(Euskaraz, azpitoluak gaztelaniaz)

5 Astelehena, 21:30  
(Euskaraz, azpitolurik gabe)

### 'Maya erlea: ezti-jokoak'

4 Domeka, 16:30

### 'Alanis'

(Ongarri Zine Kluba)  
8 Eguena, 21:30



### MEKANOSA

Errosario, 27  
Tel: 943 74 02 84 Elgoibar

- ★ IDAZMAKINEN SALMENTA ETA KONPONKETA
- ★ MULTIKOPISTAK
- ★ FOTOKOPIADORAK
- ★ ERLOJU INDUSTRIALAK
- ★ MARRAZKETA MATERIALA
- ★ INFORMATIKA
- ★ FAX

Jon Aranao  
Guillermo Torres

Elgoibar  
Albaitaritza

San Roka, 26 - 20870 ELGOIBAR (Gipuzkoa)  
Tel.: 943 740 704 - 639 047 337  
Astelehenerdik ostirakera: 11:00 - 13:00 / 16:30 - 19:30  
Larunbatak: 11:00 - 13:00

Inopisindegi zerbitzua daukagu.  
Deia ordua hartzeko.

## Botika ordutegiak 09:00 - 13:00 / 16:00 - 20:00

## GUARDIAK

Egunez: 09:00-20:00

Iluntzean: 20:00-22:00

Larunbatak: 9:00-14:00 (\*)


2 BARIKAKUA	3 ZAPATUA	4 DOMEKA	5 ASTELEHENA	6 MARTITZENA	7 EGUAZTENA	8 EGUENA	9 BARIKAKUA
Egunez Barrenetxea	Egunez *Ibañez *Etxeberria	Egunez *Ibañez	Egunez Garitaonandia	Egunez Etxeberria	Egunez *Fernandez	Egunez Yudego	Egunez *Oruesagasti
Iluntzean Barrenetxea	Iluntzean *Ibañez	Iluntzean *Ibañez	Iluntzean Garitaonandia	Iluntzean Etxeberria	Iluntzean Barrenetxea	Iluntzean Yudego	Iluntzean Etxeberria

\* Fernandez:  
Herriko enparantza 4,  
Garagartza (Mendaro)  
943 756 142

\* Ibañez:  
Rekalde, 1 (Soraluze)  
943 751 638

\* Oruesagasti:  
Kalebarren, 9 (Soraluze)  
943 751 384

**Urte guztian, gabez: 22:00-09:00**  
La Fuente - Sostoa kalea, 10 (Eibar)  
943 254 410




I. URTEURRENA

*Jesus Maria Etura Echeverria*

2017ko martxoaren 1ean hil zen, 89 urte zituela. Haren oroimenez I. urteurreneko meza izango da, zapatuan, martxoaren 3an, 19:00etan, Elgoibarko Bartolome Deunaren eliz-parrokian. Joango zaretenoi aldezturik eskerrak.

***Denborak samina arintzen omen du,  
baina zure oroitzapen  
goxoa ezerk ez du lausotuko.***

Sendia





Eire Vila



## Jone Olaizola



A bila zinen esperimentuak egiten. Olio eta ura ez zirela nahasten deskubritzeak halako zirrara sortu izan zizun beti, Arkimedesen printzipioa ongi baino hobeki ikasi zenuen, baita kimikako taula periodikoa ere. Buruz nahikoa azkarra zinen, eta Batxilergoa amaitu ostean, ikasten jarraitzea erabaki zenuen. Ordura arte, neska nahiz mutil izan zenituen bidelagun; unibertsitatean sartzean, ordea, paisaia aldatu zen. Irakasle gehienak gizonak ziren, eta ezagutu zenituen katedradunen artean, denak arrak. Ostera ere, ikertzaile lanak egiteko beka eman zizutenean, konturatu zinen gero eta emakume gutxiago zenituela bidelagun, izan ere, beka-sistemak, ez du amatasun-baimena eskatzea ahalbideratzen; 'lehen, gutxi, eta orain, bat ere ez', pentsatu zenuen. Bazenekien emakumeek mendeetan zehar debekatua izan zutela unibertsitatera sartzea. Urteetako debekuak egungo egoera ulertarazi zizun: nolako egurra, halako ezpala. Beti bekadun izan ezin eta lanbidera jo zenuen *curriculum vitae*a uztera. Handik hilabetera deitu zizuten Zubietan eraiki berri zuten erraustegian kimikari arduradun bat behar zutela esanez, eta ea lan eskaintza onartuko zenuen galdetuz. Baina, nola? Erraustegiaren aurkako manifestazioan egon izan zinen maiz, hori zeure burua saltzea izango zen; baina, bestetik, emakume eta kimikari izanda, ez zen erraza lana aurkitzea. Ezetz esan zenion, bihozkada. Eta orduan, pentsatzen aritu zinen zer ekarpen egin nahi zenuen gizartean, eta kafetegian zeundela, emakume jakintsu batek idatzitakoa irakurri zenuen: "Berdintasun terminoak hankamotz uzten du feminismoa, berdintasunaren alde bakarrik borroka egiten dugula esatea, gionezkoek sufrizten duten kapitalismoa nahi dugula esatea litzateke." Eureka.

*"Beka-sistemak ez du amatasun-baimena eskatzea ahalbidetzen"*

I. URTEURRENA

*Iker Jausoro Murgiondo*  
eta  
*Joseba Zinkunegi Garmendia*

2017-02-26



*Zenbat egiteko  
eta zenbat bizitzeko,  
zuen irribarrea eta  
maitasuna gure  
bihotzetan betirako.*

MAITE ZAITUZTEGU  
Etxekoak

Bihar, zapatua, martxoak 3, 19:00etan urte meza izango da  
Elgoibarko Bartolome parrokian.



I. URTEURRENA

*Iker Jausoro Murgiondo*  
eta  
*Joseba Zinkunegi Garmendia*

2017/02/26

*Neguko haizeak Euskal Herriko mendiak ilundu arren,  
baratzean loratuko dira zuek utzitako haziak.  
Gogoan zaituztegu.*

Elgoibarko lagunak



*Mikel Gorostiza Etxaniz*

*Zure irribarre goxoa eta maitasuna  
betirako izango dira gure artean.*

2018ko otsailaren 22an hil zen, 94 urte zituela.

Sendiak bihotzez eskertzen ditu  
jasotako doluminak, bai eta hileta  
elizkizunetara agertu izana ere.



# Gremioen gida

Aroztegiak  
Elektrizitatea  
Igeltseritza  
Iturgintza  
Leihoak  
Pintura

## ITURGINTZA

**PAGOAGA S.A.**  
BULEGOA ETA ERAKUSKETA  
Pedro Migel Urruzuno, 8  
Tel.: 943 740 512 / Faxa: 943 743 585  
tiende@pagoagasa.com  
www.pagoagasa.com

BILTEGIA  
San Antolín, 13 - Tel.: 943 740 279  
tailler@pagoagasa.com

ELGOIBAR

**Ibámar**  
ITURGINTZA

San Roke 10-A, behe B  
Elgoibar  
Floren Cid: 647 463 436  
ibamar@euskalnet.net

**ONGI** Iturgintza

Pedro Muguruza Etorbidea, 11  
ELGOIBAR  
Tel.: 943 254 522  
Faxa: 943 254 523  
ongi@ongielgoibar.com  
www.ongielgoibar.com

**TELLABIDE**  
ITURGINTZA



Azpilgoeta 7 behea - Mendara  
Tel.: 943 755 062 / 607 755 062  
iturgintzateffabide@hotmail.com

**SANTANA**  
  
Igor Santana

ITURGINTZA ETA INSTALAZIOAK S.L.

Urazandi kalea 17, behea  
Elgoibar  
943 740 530 / 605 714 905  
santanaiturgintza@gmail.com

## AROSZTEGIAK

*Aroztegia*  *Carpinteria*  
**ASIMA**  
Ermuaranbide, 18 - Elgoibar

687 150 226  
650 026 631  
636 886 322  
943 744 225  
asimaaroztegia@gmail.com

**Ulazia**  
AROSZTEGIA ETA ENBALAJEAK  
Albituri industriagunea, 1-O/ 1-P  
943 740 547



**BIENA S.L.**  
AROSZTEGIA

Ermuaranbide, 12-14-16  
tel/fax. 943 743 116  
www.biena.eus  
info@biena.eus



**MAR**  
AROSZTEGIA

Olaso industriagunea, 17 behea  
943 531 471  
609 054 978  
carpinteriamar@hotmail.com



**iraolagoitia**  
aroztegia · altzariak · etxe-aldaketak

Kurutx-gain Industriagunea, 9  
20850 Mendara  
Tel.: 943 756 112 / 636 497 485  
www.iraolagoitia.com

## ELEKTRIZITATEA

**CARRANZA,**  
ELEKTRIZITATEA



Uparitzaga 10, 6.B  
Elgoibar  
karranzaj@gmail.com

Tel.: 943 741 280  
Jose Luis: 626 555 999

**egoluz**   
ELEKTRIZITATEA S.L.

Raimon: 677 512 462  
Ego-Gain, 9 AC  
20600 EIBAR

Andres: 630 957 345  
Pedro Migel Urruzuno, 14 behea  
20870 ELGOIBAR

Bulegoa: 943 200 697  
ego.luz@hotmail.com

**iparelek** s.l.  
elektrizitatea

Kilimon hiribidea, 1 - Mendara  
943 530 356

iparelek@gmail.com  
iparelek@iparelek.com

## LEIHOAK

**LODOSO**  
LEIHOAK

SIGMA INDUSTRIAGUNEA, 223  
lodosofj@gmail.com  
Tel.: 943 74 34 90

## IGELTSERITZA

**A. Garate**

Era guztietako  
igeltseritza lanak  
egiten aditua

angelmgarate@gmail.com  
Santa Ana kalea, 28 behea - 2. zkia  
Elgoibar

**610 226 651**

**E. ARANDIA**  
ERREFORMA ETA LEIHOAK

Urasandi, 22 behea - Elgoibar

Tel.: 605 705 204

Gremioen arteko  
koordinazioa.  
Pladurarekin ere  
lan egiten dugu.

## PINTURA

**BIOK**  
dekorazioa

Uparitzaga, 14 - Elgoibar  
943 741 552  
606 431 120  
biok@biokdekorazioa.com

Gremioen gida